

3seuskadi

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO NEURRIEN VI. TXOSTENA

Euskadiko enpresen sektoreak 2024an bultzatutako Hirugarren
Sektore Sozialaren sustapen-ekintza

2025



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 19. artikuluaaren arabera, gizarte-politiken inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak urtero prestatuko du sustapen-neurrien gaineko txostena. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek sustapen-ekintzen gainekoa izango da txostena, publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizatua jasoko du, baita sustapen-ekintzak hobetzeko orientabideak ere.

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

Sustapen-neurrien seigarren txostenaren hurbilpena.....	4
Aurkezpena	5
Kokatzea.....	6
Metodologia.....	8
Enpresa-sektoreak sustatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa.....	11
Zer enpresak bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?	12
Nolakoak dira enpresa-sektoreak sustatutako neurriak?	15
Zer lurraldetan dute eragina?	21
Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan	23
Nori zuzenduta daude?	24
Ondorio nagusiak	29



Sustapen-neurrien seigarren txostenaren hurbilpena


Aurkezpena

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak (aurrerantzean, EHSSL) Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala (aurrerantzean, EHSS) bultzatzeko eta sustatzeko aurreikusten dituen politiken baitan kokatzen dira EHSSko erakundeak eta sareak sustatzeko ekintzen deskribapena eta etengabeko hobekuntza, eta lege horren arabera antolatu behar dira, bereziki, lege horren IV. kapituluaren arabera. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiak (aurrerantzean, EHSSSE) ere jasotzen ditu politika horrek.

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sustapen-neurriei buruzko txostena **urtero** egiteko betebeharra Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen (aurrerantzean EHSSL) 19. artikuluan jasotzen da, eta honakoa adierazten du: “txosten hori publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizaturik jasoko du” (2. paragrafoa)¹.

EHSSLn xedatutakoaren arabera, txostenaren helburua da txostena egin den urtean erabilgarri dauden neurriak xehetasun osoz ezagutzea ahalbidetuko duen EHSSaren aldeko sustapen-ekintza publiko eta pribatuaren aldizkako panoramika eskaintzea, sustatu ahal izateko.

2024an egindako bosgarren txostenak² erkidegoko eta foruetako (hiru lurralde historikoak) administrazio publikoek bultzatutako sustapen-ekintzaren panorama orokorra eta ekintza horiekin lotutako hainbat orientazio estrategiko eta jarduketa espezifiko jasotzeko aukera eman zuen. Aurtengo txostenak Euskadiko enpresa-sektoreak edo gure autonomia erkidegoan finkatutakoak bultzatutako sustapen-neurriak identifikatu eta deskribatu ditu, 2021an egindako bigarren txostenaren ildoari jarraituz. Txosten deskriptiboa sustapen-ekintzari eskainitako lau urteko zikloaren parte da, eta hiru-txosten mota ditu:



A. Sektoreko deskribapen- eta proposamen-txostena (1 urte-2024): zikloa zabaltzen duen txostena da eta txostena egin aurreko urtean EAEko foru- eta erkidego-administrazio publikoek bultzatutako sustapen-ekintzak deskribatzea eta orientazioak eta hobetzeko proposamenak adieraztea da bere helburu nagusia.

B. Tarteko sektoreko deskribapen-txostenak (2. eta 3. urteak - 2025 eta 2026): sektore pribatuak (enpresak eta banku-fundazioak) eta EAEko tokiko administrazioak bultzatutako sustapen-ekintzen deskribapena, hurrenez hurren.

Sektoreko deskribapen- eta alderaketa-txostena (4. urtea - 2027): zikloa ixteko txostena, eduki hauekin: (a) hezkuntza-arloko erakunde publikoek eta pribatuek (ikastetxeak³, elkarteak eta federazioak, etab.) eta kirolaren arloko erakundeek (kirol-taldeak, federazioak, fundazioak, etab.) sustatutako ekintzen sektoreko deskribapen-txostena; (b) ziklo osoko sustapen-ekintza guztien deskribapena; eta (c) dimentsioak eta aldagaiak (eragileak, neurriak, lurraldeak eta erakunde

onuradunak) eta izandako aurrerapenak aurreko zikloarekin alderatzea, aurreko zikloan identifikatutako sustapen-sistemaren hobekuntzaren orientazioei eta proposamenei dagokienez.

¹ Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

² Hemen eskuragarri: <https://3seuskadi.eus/que-hacemos/medidas-de-promocion-del-tsse/informe-sobre-las-medidas-de-promocion-del-tercer-sector-social-en-2019/>

³ Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako edo goi mailako irakaskuntza zentro publiko edo pribatuak.

Hala, bigarren zikloko txosten honek, txostena egin aurreko urte naturalean enpresa-sektoreak bultzatutako sustapen-ekintzaren deskribapen kuantitatiboa aurkezten du. Hainbat alderdi hartu dira kontuan neurri horiek identifikatzeko eta deskribatzeko: sustapen-neurriak sustatzen dituzten eragileen ezaugarriak (mota, tamaina, jarduera ekonomiko nagusia); bultzatzen dituzten neurrien ezaugarriak (kategoriak, mobilizatzen dituzten baliabide- motak); eragina duten lurraldea; bultzatzeko garaian jasotzen duten lankidetzaz; eta, azkenik, jarduera esparru nagusiaren arabera, hartzaille diren EHSSko erakundeak eta sareak. Horrez gain, bakarrik edo beste eragile publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan bultzatutako neurriak gehitu dira⁴.

Lan horri esker, Euskadiko (egoitza soziala EAEn dutenak⁵) edo gure autonomia erkidegoan finkatutako⁶ 200 enpresa, fundazio eta enpresa-erakunde baino gehiagok garatutako 470 sustapen-neurri inguru identifikatu dira, eta bigarren txostenean (2021) deskribatutako eta sistematizatutako ekintzen kopurua handitu da. Hori horrela, enpresa-sektoreak EHSSko erakundeak eta sareak indartzeko egiten duen lanaren gaineko ezagutza sakondu da.

Kokatzea

Sustapen-neurrien kontzeptualizazioa eta sailkapena

Hemen jarraipena ematen zaio sustapen-neurrien lehen txostenean (2020) ezarritako definizioari. Honela definitzen zuen sustapen-neurria: **“EHSSren eta erakunde edo sare horietan ez dauden eragileek EHSSko erakundeak eta sareak garatzeko eta hobetzeko egindako edo sustatutako edozein ekintza zehatz (modu eragilean zehaztua) eta baliabidedun (ekipoak, aurrekontua...), diseinuan, garapenean eta/edo ebaluazioan parte hartzeko aukera ukatu gabe”** (8. or.).

Lehen txosten horretan, gainera, argitzen zen sustapen-neurriak izan zitezkeela “EHSSko erakundearen eta sarearen gaitasunak edo baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak...) modu argian eta zuzenean indartzen dituzten sektore arteko lankidetzak-ekintzak; adibidez, enpresek EHSSko erakundeetan hedatutako boluntariorik korporatiboa, edo kausadun marketina”. Kontrara, ezingo dira sustapen-neurri gisa hartu “EHSSko erakundeak eta sareak sustatzea (jasangarritasuna, garapena, hobekuntza...) ez den beste helburu batzuekin hirugarrengoei sustatutako jarduketak, indartzea terminoaren definizioa zabala den arren (esaterako, koherentzia bezalako alderdiak barne hartzen ditu)”. Halaber, txosten honek identifikatutako neurrien sailkapena mantentzen du, I. txostenean ezarritako kategorizazioaren arabera. Txostenak 15 mota bereizten zituen, baina kasu honetan bi mota ezabatu dira⁷, soilik sektore publikoak sustatutako neurriak direlako:

1. EHSS EZAGUTZEA ETA AITORTZEA: EHSSko erakundearen eta sarearen lana, jarduera, ibilbidea, etab. ezagutzera ematea eta aitortzea helburu duten jarduerak.

2. ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA INDARTZEA: hainbat bideren eta kudeaketa hobetzearen bidez erakundeak eta sareak indartzea helburu duten jarduerak.

⁴ Txostenak enpresa-sektoreak soilik sustatu ez dituen sustapen neurriak ere baditu, hala nola:

- Lankidetzak publiko-pribatua: enpresa-sektoreak sektore publikoarekin batera sustatutako sustapen-neurriak.
- Lankidetzak pribatua-soziala: enpresa-sektoreak EHSSrekin lankidetzan sustatutako sustapen-neurriak, EHSSren gaitasunak edo baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak...) indartzeko xede argi eta zuzena dutenean.
- Lankidetzak publiko-pribatua-soziala: enpresa-sektoreak eragile publikoekin eta EHSSko erakunde edo sareekin bultzatutako sustapen-neurriak.

⁵ “Kudeaketa administratiboa eta negozioen helbidea behar bezala zentralizatuta” duen egoitza soziala (Zerga Lege Orokorren 48. artikulua).

⁶ Egoitza soziala EAETik kanpo duten, baina gure erkidegoan establezimendu bat edo gehiago dituzten enpresak.

⁷ Hemen fiskalitate-neurriak ez dira kontuan hartzen, dagokion araudian edo zerga-ordenantzari jasotako jarduketekin, eta sektore publikoaren sustapen-estrategia espezifikoaren sustapenarekin lotutako neurriekin.

- 3. AZPIEGITURAK:** EHSSko erakundeei eta sareei azpiegiturak eskuratzea edo haiek eraikitzea, berritzea edo modernizatzea erraztera bideratutako jarduerak.
- 4. FINANTZAKETA:** EHSSko erakunde eta sareen jarduera propioa (erantzukizun publikoko zorroetan jasota ez dauden zerbitzuak) eta kudeaketarako, prestakuntzarako... beste laguntza batzuk finantzatzera bideratutako jarduerak.
- 5. BOLUNTARIOTZA ETA ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA:** emakumeak, gazteak, adinekoak eta herritarrak bazkide edo boluntario (boluntariotza soziala) gisa sustatzeko tresnak (agentziak) eta ekintzak.
- 6. FUNTZIOEN OREKA:** erakundeek eta sareek zerbitzuak ematearekin zerikusirik ez duten funtzioak garatzea ahalbidetzen duten ekintzak: beharrak hautematea, ikerketa, berrikuntza, sentsibilizazioa, salaketa, eskubideen sustapena, bata besteari laguntzea...
- 7. KOHERENTZIA:** erakundeetan honakoak sustatzera bideratutako ekintzak: berdintasuna, kontziliazioa, aniztasuna, integrazioa, euskararen erabileraren normalizazioa eta, orokorrean, sektorearen balioak adieraztea eta pertsonen eskubideak erabiltzea.
- 8. BETEBEHARRAK BETETZEA:** erakundeak egungo arau-aldaketetara edo aurreikusita dauden arau-aldaketetara egokitzeko laguntza.
- 9. BALIO ERANTSIA INDARTZEA:** erakundeak bereizten dituzten eta erantzukizun publikoko zerbitzuen eskaintzari balioa eranstean dioten alderdiak garatzeko laguntza.
- 10. SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 11. SEKTORE PUBLIKOAREKIN LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 12. BESTE SEKTORE, ERAKUNDE ETA MUGIMENDU SOZIAL BATZUEKIN LANKIDETZA:** EHSSko erakundeen, eta sareen eta sektore publikoaz gaindiko beste sektore batzuen arteko elkarlana errazten edo sustatzen duten jarduerak.
- 13. SUSTAPEN NEURRIETARAKO SARBIDEA:** erakundeei (bereziki, elkarte txiki eta ertainei) laguntzeko egiturak, sustapen-neurrietarako sarbidea errazteko.

Enpresa-sektoretzat zer ulertzen dugun

Oro har, enpresa-kontzeptua mugatzeko, administrazio publikoek eta erakundeek 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen 2003/361/CE Gomendioa jarraitu dute gehienbat, zeinak 1. eranskinean honela definitzen duen: “jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen erakunde oro, izaera juridikoa edozein izanik ere”⁸. EBko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak zentzu berean definitu du; jarduera ekonomikoa egiten duen erakundea, estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua edozein duelarik ere⁹.

Beraz, definizio horretan, jarduera ekonomikoa da enpresaren izaera zehazten duen, eta ez bere estatutu juridikoa. *Estatuko laguntza-kontzeptuari buruzko Komunikazio Batzordeak* adierazi duen moduan, “Justizia Auzitegiak behin eta berriz ebatzi du merkatu jakin bati ondasunak edo zerbitzuak eskaintzen dizkion jarduera oro jarduera ekonomikoa dela”¹⁰.

Definizio hori ezarri dugu, baina txosten honetarako orokorregia denez, bi irizpide jarraitu ditugu zehaztasun handiagoa izateko:

1. Alde batetik, jarduera ekonomikoak, eta ez forma juridikoak, erabakitzen duenez enpresatzat hartzea, kanpoan utzi dira jarduera ekonomiko bat egiten duten hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta sareak, definizio horren arabera, enpresatzat har baitaitezke.
2. Bestalde, hauek bultzatutako sustapen-ekintza soilik hartu da kontuan:
 - a. Edozein sektoretako eta ekonomia-jardueratako enpresa pribatuak. Enpresa publikoak alde batera utzi dira, haien sustapen-ekintza lehen (2020) eta bosgarren txostenean (2024) jaso zelako.
 - b. Administrazioen eta erakunde publikoen parte-hartze partziala duten enpresa pribatuak.

Halaber, sustapen-eragile gisa enpresei lotuta dauden eta enpresa-sektorea izan daitekeen horren parte diren beste erakunde-mota batzuk ere gehitu ditugu. Hauek dira:

- a. **Enpresa-fundazioak.** Hein handi batean enpresa-fundazio horiek Hirugarren Sektore Sozialari eragiten dioten erantzukizun sozialeko jarduerak hedatzen dituztelako edo hedatu ditzaketelako.
- b. **Enpresa-erakundeak,** hala nola beste mota bateko elkarteak eta federazioak edo enpresa-elkarteak, eratzen dituzten enpresen artean erantzukizun sozialeko ekintzak sustatzen dituztelako, eta haiek sustatzen dituztelako EHSSko sustapen-neurriak.

Metodologia

Eragileak eta haiek bultzatutako sustapen-neurriak identifikatzeko eta erregistratzeko, **web bidez arakatzeari** izan da metodo bakarra. Bigarren txostenetik abiatuta (2021) egindako enpresa-sektoreko sustapen-eragileen datu-basea erreferentziazat hartuta egin da azterketa, eta datu-base horretan erregistratutako enpresa-eragileen eta hiru Lurralde Historikoetako EHSSko erakundearen ausazko lagin bat erabili da. Lagin horretan hainbat jarduera ekonomikotako eta tamainatako enpresak eta hainbat arlotako

⁸ Artikuluak honakoa eranstean du: “Zehazki, enpresatzat hartuko dira artisau-jarduerak edo norberaren izenean edo familiaren izenean beste jarduera batzuk egiten dituzten erakundeak, eta modu erregularrean jardueraren bat gauzatzen duten pertsona-sozietateak eta elkarteak”.

⁹ Cfr. 2000ko irailaren 12ko Justizia Auzitegiaren sententzia, Pavlov eta beste batzuk, pilotutako gaiak C-180/98 a C-184/98, ECLI:EU: C:2000:428, 74. Atala, 2006ko urtarrilaren 10eko Justizia Auzitegiaren sententzia, Cassa di Risparmio di Firenze SpA eta beste batzuk, C-222/04, ECLI:EU:C:2006: 8, 107. atala.

¹⁰EUROPAKO BATZORDEA. Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatu 1. ataleko 107. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, estatuko laguntzari buruz Batzordeak egindako Komunikazioa (2016/C 262/01). *Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala*, 262. Zk., 2016ko uztailaren 19koa, 4. or.

EHSSko erakundeak gehitu dira, aztertutako aldian zehar bultzatutako neurriak identifikatzeko. Horretarako, erantzukizun sozialera eta/edo beste sektore batzuetako eragileen lankidetzara bideratutako jarduera-memoriak eta erakunde horietako webguneak berrikusi ziren.

Garrantzitsua da adieraztea identifikatutako enpresa-eragileen taldea ez dela Euskadiko enpresa sektore osoaren ordezkaria estatistikoki, baizik eta kontsultatutako iturrietatik abiatuta egindako hautaketa partziala dela. Enpresa-sektoreak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren alde egindako sustapen-ekintzarako hurbilpen deskribatzaile eta ilustratiboa eskaintzea da bere helburua. Horregatik, emaitzak eta banaketak aztertutako fenomenoaren ikuspegi osatugabe baina esanguratsutzat hartu behar dira. Hain zuzen ere, ikuspegi horrek patroiak eta interesguneak identifikatzeko aukera ematen du, baina zorrotzak eta estatistikoki adierazgarriak izateko asmorik gabe.

Gerora, bi bideetatik eskuratutako **datuak iragazi** ziren, errepikapenak ezabatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta neurriak deskribatutako kategorizazio-metodoen bidez sailkatu ziren. Aurreko urteetan bezala, jasotako informazioa SPSS estatistikak aztertzeke programarekin tratatu da, neurri bakoitzak emandako informazioan oinarritutako lau dimentsio handiren arabera:

1. **KATEGORIAK:** sustapen-ekintzen **banaketa** zehazten du, neurriak sailkatzeko erabili diren **kategorien eta azpitaldeen arabera**¹¹.
2. **ERAGILEAK:** eragileek sustapen-ekintzetan **duten pisua** zehazten du.
3. **LURRALDEAK:** sustapen-ekintza **lurralde-eremuen arabera banatzen du**.
4. **HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEAK:** sustapen-ekintzak EHSSko erakundearen artean nola **banatzen** diren zehazten du, ezaugarri anitzi jarrita.

Identifikatutako **sustapen-neurriak** kategoria eta moten arabera erregistratu dira. Neurri bat, dituen ezaugarriengatik, kategoria batean baino gehiagotan sailka daitekeen ezohiko kasuetan, neurriaren helburuarekin ongien bat datorren kategorian erregistratu dugu, kasu bakoitzean.

Identifikatutako eragile bakoitzaren kasuan erregistratu da, ahal izan den heinean, egoitza soziala zer lurraldetan duen, bere tamaina eta ekonomia-jarduera nagusia.

Neurriei dagokien lurraldea erregistratzeko, neurri horiek **zuzenduta dauden edo eragina duten lurralde eremu administratiboa** hartu dugu kontuan Normalean bat etortzen da neurria bultzatzen duen eragilearen lurraldearekin, baina hala gertatzen ez denean, irizpide bera mantentzen da, hau da, neurria eragina duen lurraldean erregistratzen da, eta ez bultzatzen duen eragilearen lurraldean. Lurralde eremu administratiboen sailkapena honela geratu da: Araba; Bizkaia; Gipuzkoa; Euskadi; Estatua; Estatutik kanpo.

EHSSko erakunde hartzaileen arabeko sustapen-ekintzak honako aldagaien arabera erregistratu ditugu:

- erakundearen **izaera juridikoa**;
- **neurria** (diru-sarreraren bolumenaren arabera);
- jarduera **arloa**;
- artatzen duten **kontingentzia**.

¹¹ Informazio gehiagorako kontsultatu koadroa, bertan ageri da sustapen-neurrien kontzeptualizazioa eta sailkapena.

Laburtuz, txosten honetan identifikatutako neurri bakoitzaren kasuan, honako informazio hau dugu¹²:

Sustapen-neurriaren izena	
Kategoria	Kategoriaren izena
	Neurri mota
Eragile bultzatzailea	Eragile bultzatzaile mota
	Tamaina
	Egoitza soziala
	Jarduera ekonomikoa
Lurraldea	Neurria zuzentzen den edo eragina duen lurralde eremua
Erakunde hartzaileak	Erakundeen izaera juridikoa
	Erakundeen tamaina
	Erakundeen jarduera esparrua
	Erakundeek artatzen duten kontingentzia

¹² Aldagai hauen (izaera juridikoa, maila, arloa, etab.) gaineko informaziorik ez dagoenean edo ondorioztatu ezin denean, “zehaztu gabe” kontzeptuarekin erregistratzen da. Neurriak edozein izaera juridikotako, jarduera arlotako eta abarretako erakundeei zuzenduta daudenean, “zehaztugabea” izenarekin erregistratzen dira.

“Tamaina” aldagaien kasuan, “Elkarte Txiki eta Ertainak” tipologia (haien diru-sarreraren bolumenaren arabera txikiak edo ertainak diren erakundeak -hau da, 300.000 € baino gutxiagoko sarrera-bolumena dutenak) erregistratu dugu, identifikatutako neurria tamaina horretako erakundeei zuzentzen bazaie, berariaz edo espezifikoki.



Enpresa-sektoreak sustatutako sustapen- ekintzaren sistematizazioa

Zer enpresak bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?

Txostenaren emaitzek erakusten dute dibertsitate handia dagoela Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren aldeko neurriak sustatzen dituzten enpresa-sektoreko 216 eragileen artean, sailkapen-motaren, tamainaren, egoitza sozialaren eta jarduera ekonomiko nagusiaren arabera, Eustatek egindako Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren azken eguneraketak (2024ko urtarrila) eskaintzen duen Euskadiko enpresa-ehunduraren egituraren aberastasunarekin bat eginez¹³.

Enpresa-sektoreko eragile sustatzaileak, motaren arabera

Sustapen-neurrien bultzatzaile gisa identifikatutako eragile guztien kasuan (216), 2024ko datuek erakusten dute **enpresak eta enpresa-taldeak** direla nagusi. Guztira, halako 202 eragile identifikatu dira, guztizkoaren % 93,52.

Distantzia nabarmenera daude **enpresa-fundazioak**, 13 erakunderekin (% 6,02) eta presentzia oso txikia dute **enpresa-erakundeak** —enpresa-ehunduraren erakunde ordezkari edo koordinatzaile gisa ulertuta—, bat bakarra identifikatu baita (% 0,46).

Emaitza horiek 2021eko txostenarekin alderatuz gero, ikus daiteke proportzio erlatiboak ia ez direla aldatu. Bi kasuetan, enpresek eta enpresa-taldeek eragile sustatzaileen % 95 inguru kontzentratzen dute, enpresa-fundazioek % 3 eta % 6 artean eta enpresa-erakundeak ehuneko puntu erdira baino ez dira iristen. Hortaz, termino erlatiboetan, 2024ko datuek berresten dute enpresa-sektoreko eragile sustatzaileen profila egonkorra dela, eta gorabehera txikiek ez dutela aurreko aldian hautemandako egitura orokorra aldarazi.



Patroi horrek berresten du EHSSren enpresa-sustapenerako ekintza enpresen eta enpresa-taldeen ekimen zuzenean oinarritzen dela nagusiki, eta fundazio-egituren edo enpresa-arloaren ordezkaritza kolektiboaren parte-hartzea oso txikia dela termino kuantitatiboetan.

Enpresa-sektoreko eragile sustatzaileak, tamainaren arabera

2024an, ezin izan da enpresa-sektoreko eragile sustatzaileen % 16,7ren (36 eragile) tamaina zehaztu. Hortaz, deskribapena eragileen % 83,3arena (180 eragile) da, horien informazioa bildu baita.

Tamaina identifikatu zaien eragileen artean, **enpresa handiak** dira nagusi, guztizkoaren % 46,7 baitira. **Enpresa txikiak**, % 22,2rekin, eta **enpresa ertainak**, % 21,1ekin, daude atzetik. **Mikroenpresek**, berriz, presentzia oso txikia dute (% 10).

Oro har, **ETEak** (enpresa mikro, txiki eta ertainak) identifikatutako eragileen % 53,3 dira. Banaketa horrek argi erakusten du enpresa-ehundura sustatzailea dibertsifikatuta dagoela, nahiz eta erakunde handiek pisu nabarmena izan sustapen-ekintzan.



¹³ Hemen ikus daiteke: https://es.eustat.eus/estadisticas/tema_30/opt_1/temas.html

Emaita horiek 2021eko txostenarekin alderatuz gero, proportzio erlatiboak nahiko egonkor mantendu dira. Bi ekitaldietan, ETEak dira identifikatutako eragileen erdia baino apur bat gehiago. Enpresa handiek, berriz, posizio adierazgarria dute eta hazkunde erlatibo txikia izan dute gainera. Oro har, 2024ko datuek berresten dute patroia orekatua dela, baina sustapen-ekintza enpresa txikiagoetan kontzentratzeko joera dagoela.


Enpresa-sektoreko eragile sustatzaileak, egoitza sozialaren arabera

Kontzentrazio handiena **Bizkaian** dago, % 38,9rekin (84 erakunde), hau da 10etik ia 4. Atzetik daude **Gipuzkoa**, % 27,3rekin (59 erakunde) eta **Araba**, % 15,7rekin (34 erakunde). Oro har, guztizkoaren % 80 baino gehiago (% 81,9) biltzen dute EAEko hiru lurralde historikoek.

Beste % 18,1 (39 erakunde) egoitza soziala EAEtik kanpo duten arren, erkidegoan establezimenduak dituzten enpresak dira, batik bat enpresa handiak.

2021arekin alderatuta, egitura ez da ia aldatu: Bizkaiak apur bat indartu du bere pisua (%33tik % 38,9ra) eta Gipuzkoan eta Araban beherakada txikia izan da (% 29tik % 27,3ra eta % 18tik % 15,7ra, hurrenez hurren). Egoitza EAEtik kanpo duten enpresa-taldeen proportzioa ere murriztu egin da (% 20tik % 18,1era).

Laburbilduz, egonkortasuna berretsi da lurralde-banaketan, kontzentrazio apur bat handiagoarekin Bizkaian eta kanpoko enpresen presentzia erlatibo txikiagoarekin, 2021ekin alderatuta.



Enpresa-sektoreko eragile sustatzaileen banaketa, jarduera ekonomikoaren arabera

Identifikatutako enpresa-sektoreko 216 eragile sustatzaileak Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nagusian aurreikusitako 21 jarduera-taldeetako 16tan kontzentratzen dira, eta horrek agerian uzten du ekoizpen-sektoreen estaldura zabala dela, nahiz eta ez izan homogeneoa.

Azterketak bi jarduera-adarren gaineko polarizazio argia erakusten du:

1. **Handizkako eta txikizkako merkataritza** 54 erakunderekin (% 25) eta
2. **Manufaktura-industriak** 51 erakunderekin (% 23,6).

Bi sektoreetan metatzen dira eragile sustatzaileen % 48,6, guztizkoaren erdia ia. Proportzio horrek 2021eko txostenean adierazitako joera mantentzen du (% 45) eta enpresa-ehundurak bultzatutako sustapen-ekintzan duen egiturazko posizio nagusia berresten du.

Bigarren blokerik garrantzitsuenean daude **finantza-jarduerak**, aseguru-jarduerak eta **informazio- eta komunikazio-jarduerak**, 22 erakunderekin bakoitza (% 10,2). Gainera, azken sektore horrek eboluzio bereziki adierazgarria izan du 2021arekin alderatuta, pisu erlatiboa bikoiztu duelako (% 5,7tik % 10,2ra).

Jarraian, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (12 erakunde; %5,6) eta beste zerbitzu batzuen kategoria jaso dira (11 erakunde; % 5,1). Guztizkoaren % 10 baino apur bat gehiago dira guztira.

Gainerako jarduera-adarrek (hala nola energiak, ostalaritzak, garraioak, hezkuntzak, eraikuntzak edo higiezin-jarduerak) presentzia oso txikia dute, eta % 4tik beherako parte-hartze indibidualak dituzte. Hala ere, eragile-sustatzaileen % 20 inguru jarduera horietakoak dira, beraz, horrek erakusten du enpresa-oinarri sustatzailea nahiko dibertsifikatuta dagoela, nahiz eta pisu adierazgarririk ez lortu sektore nagusien gainean.

Konparazio-terminoetan, azterketak berresten du 2021 eta 2024 artean eragile sustatzaileen egitura sektoriala nahiko egonkor mantendu dela, eta gorabehera txikiak izan direla sektore berrietan, besteak beste informazioaren eta komunikazioen sektorean. Datu horrek erakusten du kontzentrazio-patroi bat dagoela merkataritzaren eta industriaren gainean, eta beste zerbitzu batzuekin lotutako jarduerak sartu direla pixkanaka (komunikazioa, energia...).




Nolakoak dira enpresa-sektoreak sustatutako neurriak?

Identifikatutako neurriak kategorien arabera

Aztertutako aldian, **enpresa-sektoreko eragileek sustatutako 469 neurri** hauteman dira guztira, **aurreikusitako 15 kategoriatik 8tan** banatuta. Lehenengo txostenean (2021) adierazitakoaren antzera, enpresen sustapen-ekintza **finantzaketaren kategorian kontzentratzen da argi eta garbi, 422 neurri biltzen baititu (% 89,98)**. Datu horrek erakusten du ehuneko **10 puntuko hazkundera izan dela aurreko txostenetik** (% 81,16), eta, beraz, EHSSri laguntzeko mekanismo nagusia finantzazioa dela berresten du.

Hala ere, finantzazioak duen pisua eztaba daezina izan arren, identifikatutako gainerako 47 neurriek duten garrantzi kualitatiboa ere ez da alde batera utzi behar. Neurri horiek desberdin daude banatuta zazpi kategoria gehigarriren barruan:

- Azpiegiturak:** EHSSri ekipamenduetarako eta espazioetarako sarbidea izaten laguntzera bideratuta daude 15 neurri (% 3,20). Ekimen horien barruan sartzen da, bai instalazioen erabilera puntuala, bai proiektu egonkorrentzako laguntza. Kategoría horretan erregistratutako ehunekoa 2021eko txostenekoaren antzekoa da (% 3,95).



- b. **Boluntariotza eta asoziazionismoa bultzatzea** 15 neurri (% 3,20) enpresa-erakundeek enplegatutako pertsonen sustatutako boluntariotza korporatiborako programekin lotuta daude. Boluntariotzarako euskal agentzien laguntza espezifikoak ere sartzen dira, garrantzi kualitatibo handia baitu sektore sozialarentzat.
- c. **EHSS ezagutzea eta aitortzea:** Sektorearen lana ikusarazteko eta garrantzia emateko 8 neurri (% 1,71). Horiek dira, besteak beste, enpresek erakunde sozialek antolatutako sentsibilizazio-ekitaldietan (erakusketak, lasterketa solidarioak, etab.) parte hartzea eta aitortza publikoa jasotzeko sariak sustatzea.
- d. **Antolaketa eta kudeaketa indartzea:** EHSSren barne-gaitasunak hobetzera bideratutako 4 neurri (% 0,85).
- e. **Balio erantsia indartzea:** Gizarteratzeko eta lan-munduratzeko programak babesteko 2 neurri (% 0,43).
- f. **Sustapen neurrietarako sarbidea:** Erakunde sozialek laguntza-tresna espezifikoetan parte har dezaten sustatzeko 2 neurri (%0,43).
- g. **Beste sektore, instituzio eta mugimendu sozial batzuekin batera lan egitea:** Sektoreen arteko sinergiak sustatzeko 1 neurri (% 0,21).

Emaitzek berresten dute finantzazioa dela enpresen sustapen-ekintzaren ardatz nagusia, eta 2021ean baino pisu handiagoa duela (% 81,16tik % 89,98ra). Hazkunde horrek murriztu egin du bigarren mailako kategorien presentzia, guztizkoaren % 10era baino ez baita iristen. Hala ere, intzidentzia kuantitatibo txikia izan arren, neurri horiek —azpiegiturak, boluntariotza, antolakuntza indartzea, EHSS aitortzea, eta abar— balio kualitatibo handia ematen dute, eta laguntzak dibertsifikatzeko eta sektorearen egitura indartzeko ekarpena egiten dute.

Finantzaketak enpresako sustapen-neurrien artean duen pisu handia dela eta, beharrezkoa da azpikategoriak zehatz deskribatzea.

Datuek erakusten dute finantzaketa neurri ia guztiak (422tik 417: % 98,82) **laguntzak eta dirulaguntzak** direla. Kategoria horren barruan dirulaguntzak ez ezik, enpresek EHSSi eskaintzen dizkieten zuzkidura ekonomikoen beste formula batzuk ere sartzen dira; hala nola **dohaintzak, babesletzak, mezenasgo-ekintzak edo ekarpen ekonomiko zuzenak**.

Gainerako finantzaketa-neurriak oso txikiak diren arren, laguntza ekonomikoa eskaintzeko beste formula dibertsoago batzuk ere badaudela erakusten dute:

- **Herritarrek, kontsumitzaileek edo langileek finantzaketan parte hartzea sustatzeko tresnak:** 2 neurri (% 0,47) enpresetako langileek erakunde sozialen jardueren finantzazioan duten inplikazioarekin lotuta nagusiki.
- **Bekak:** 1 neurri (% 0,24) erakunde sozial bateko erabiltzaileei zuzendutako dirulaguntza da.
- **Kreditua eskuratzeko mekanismoak:** 1 neurri (% 0,24) *Fiarek* sustatu du proiektu sozialen finantzazioa sustatzeko.
- **Zuzkidura ekonomikoa duten sariak:** 1 neurri (% 0,24), *Orklik* irabazi asmorik gabeko erakundeentzat sustatutako aitortza da.

Finantzaketa-neurrien azpikategoriak	Absolutuak	%
Laguntzak eta dirulaguntzak	417	98,82
Parte-hartzea sustatzeko tresnak...	2	0,47
Bekak	1	0,24
Kreditua eskuratzeko mekanismoak	1	0,24
Sariak	1	0,24
Guztira	422	100,0

Oro har, datuek erakusten dutenez, laguntzak eta dirulaguntzak dira EHSSren enpresa-finantzazioaren zutabe nagusi eta hegemonikoa, baina eskala txikiagoan beste formula osagarri batzuk ere garatzen dira, eta formula horiek laguntza ekonomikorako mekanismoen pluraltasuna islatzen dute, nahiz eta inpaktu oso txikia eduki oraindik termino kuantitatiboetan.

Mobilizatzen dituzten baliabide moten arabera identifikatutako neurriak

EHSSLren 24.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian enpresa-sektore sustatzaileko erakundeek mugitzen dituzten baliabide-moten arabera identifikatutako neurrien banaketa jasoko dugu. Hala, lau mota handiren arabera sailkatu ditugu neurriak:

1. **Baliabide ekonomikoak:** Hirugarren Sektore Sozialako erakunde eta sare hartzaileen egitasmoak garatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten sustapen-ekintzak (jarduera, proiektu, programa... bat finantzatzeko edo gastuak ordaintzeko).
2. **Giza baliabideak:** langileak mobilizatzen dituzten sustapen ekintzak dira, eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sare hartzaileen zerbitzura jartzen dituzte borondatez jardueraren bat garatzeko edo proiektu edo programaren bat sustatzeko beren esperientzia, ezagutza profesionala edo denbora.
3. **Baliabide sozialak:** enpresa edo erakunde eta sare hartzailekoak ez diren beste erakunde eta/edo pertsonen mobilizazioa eta/edo parte-hartzea dakarten sustapen-ekintzak eta hainbat modutara azken hartzaile horiei laguntzen dietenak.
